



Lagun Artean



TXOSTENA 2019

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu 2019an laguntza eman diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei, bazkide, boluntario eta bestelako kolaboratzaileei. Zuek guztiok gabe Lagun Artean proiektua ez litzatekeen posible izango. Mila-mila esker!



Nor gara	3
Zer egiten dugu	5
Eguneko arreta	6
Egoitza arloa	8
Gizarte eraldaketa	13
Arlo ekonomikoa	18

Egitekoa


Lagun Artean Harrera Zentroa irabazi asmorik gabeko elkarte da, erabilgarritasun publikokoa eta interes sozialekoa, Caritas Bizkaiarekin erlazionatua. Etxerik gabeko pertsonen eta gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden beste pertsona batzuen gizarteratze-prozesuetan bide-laguntza ematen du. Gure lanak bi ildo nagusi ditu: pertsonen harrera eta gizarte laguntza, eta salaketa eta sentsibilizazioa. Gure jarduera Bilbon garatzen da; bertan, arreta espezializatuko zerbitzuak eta egoitza baliabideak ditugu. Gure esku-hartze ereduak pertsona jartzen du erdigunean, loturak sortzen ditu, topaketa eremuak bideratzen ditu eta parte-hartze soziala aktibatzen du.

Ikuspegia


Etxerik gabeko pertsonarik egongo ez den gizarte bat eraikitzeke itxaropena dugu. Bazterkeria egoerak dauden bitartean, honakoak izango dira gure xedeak:

- Esku-hartze espezializatuaren arloan erreferente izan nahi dugu, berrikuntza eta kalitatea oinarri, errealtate berrietara etengabe egokituz eta pertsona babesgabeenengana zuzenduz.
- Berdintasunezko espazio bat izan nahi dugu, aktiboki parte hartu eta salaketa soziala egiteko, bazterkeria sortzen duten egoera horiek desagerrarazteko lan eginez.

Balioak



Organigrama



Taldea

	<i>Langileak</i>	<i>Boluntarioak</i>	<i>Bazkideak</i>	<i>Praktiketakoak</i>	<i>TBC</i>
<i>Emakumeak</i>	22	31	32	13	0
<i>Gizonak</i>	14	30	19	7	54
<i>Erakundeak</i>			9		
<i>Guztira</i>	36	61	60	20	54



2018-2021 Plan Estrategikoa

Lagun Artean elkarteak Etorkizunerako Planak eta urteko Kudeaketa Planak garatu ditu 2009tik. Horien bidez, 2018-2021 Plan Estrategikora heldu gara, Kudeaketa Aurreratuaren aldeko apustua eginez.

Bereizten gaituzten ildo estrategikoak honakoak dira, batez ere:

- Lagun artean elkarte etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duen erreferentziatzko elkarte gisa finkatzea.
- Lagun Artean elkartearen zerbitzu eta programak sendotu eta hobetzea, kalitateari dagokionez, pertsonengan oinarritutako arreta eredu ardatz, eta gure proiektuetan parte hartzen duten pertsonen errealitate aldakorrera egokituz.
- Salaketa eta eraldaketa soziala.

2019-2021 Berdintasun Plana

Lagun Artean elkarteak Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako erakunde laguntzailearen aitortpena jaso zuen Emakunderen eskutik, 2005ean. Konpromiso hori mantendu dugu eta 2018an gure II Diagnostikoa eta 2019-2021 Berdintasun Plana diseinatu genituen, gure ildo estrategikoen arabera eta emakumeen bazterkeria egoerak ikusaraziz.

Zer egiten dugu


Gure lanaren helburua gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen **gizarteratzea** bideratzea da. Pertsona bakoitzari bide-laguntza pertsonalizatua eskaintzen diogu, ezaugarri eta gaitasun pertsonalei erantzuteko. Pertsonengan oinarritutako eredu batetik abiatuta, bakoitzaren beharrian eta gaitasunak identifikatzeko **diagnostikoa** egiten dugu, eta **Arreta Plan Indibidualizatua** garatzen dugu, pertsonak berak eta prozesu osoan gidari lana egingo duten langileek adostuta.

Gizarte eta heziketa arloko esku-hartze lan indibidualizatua burutzeko metodologia honetan datza, batez ere: pertsona guztiei beren gizarteratze-prozesuetan **laguntzea**, harremanak sortzen saiatuz eta haientzako erreferente izanez.

Burutzen ditugun **jarduerak** honako arloetan sailka daitezke: arriskuaren prebentzioa, bizi-kalitatea hobetzea, lan eta gizarte sustapena, berdintasuna, eta beste gizarte baliabide batzuekiko lankidetzeta eta izaera osagarria.

- **Eguneko arreta:** Irekia eta Kide zerbitzuak.
- **Egoitza arloa:** Gaueko zentroa eta Egoitzak.

Ondoren, programen arteko lotura eta sarbidea aurkeztu dugu, hau da, ibilbidea:





EGUNEKO ARRETA EMATEKO IREKIA ZERBITZUA

Bilboko Udalak finantzaturako zerbitzu honek eguna pasatzeko espazioa eskaintzen du, kalean bizitzeak dituen eraginak ahal beste arindu nahian. **Oinarrizko beharrianak** estaltzen dira (gosaria, kafea eta berotasuna, garbitegia, higieena, ile-apaindegia, kontsigna...), **aisialdi jarduerak** eta **tailer sozialak**, Bilboko etxerik gabeko pertsona guztientzat. Gainera, **gizarte zerbitzuengatik errolda egiteko** erraztasunak ematen dira, baita prestakuntza, osasun eta bestelako baliabide batzuen inguruko **informazioa** ere. Hori guztia, gizarteratze-prozesuak bideratzeko asmoz.

ORDUTEGIAK ETA JARDUERAK

- **Gosariak:** astelehenetik igandera, 08:00etatik 08:30era.
- **Tailerrak (gaztelania, trebetasun sozialak, eta abar)** astelehenetik ostiralera: 09:30etik 12:30era.
- **Garbitegia, higieena eta kafea:** astelehenetik ostiralera, 14:00etatik 15:30era.
- **Ile-apaindegia:** ostiraletan, 10:00etatik 12:00etara.
- **Txangoak, salaketa soziala, aisialdia, kultur eta kirol jarduerak...**



EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA KIDE

Bizkaiko Foru Aldundiak finantzaturako eguneko zerbitzu hau bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri eskaintzen zaie, eta **gizarteratzea** du helburu. Izaera anitzekoa da, eta denboran zehar luzatu daiteke. Beren ohiko inguruarekin lotura mantendu dezaten saiatzen gara, eta **bide-laguntza indibidualizatua** garatzen da, **esku-hartze okupazionalak, heziketa arlokoak eta terapeutikoak** uztartuz. **Zerbitzu osagarri** moduan, honakoak eskaintzen dira: mantenua, dutxak, garbitegia, kontsigna, ile-apaindegia, garraio-gastuak, tratamendu medikoen jarraipena, eta abar.

PROGRAMAK

- Esku-hartze pertsonala eta oinarritzko sareak.
- Garapen pertsonala.
- Parte-hartze komunitarioa.
- Errehabilitazio kognitiboa.
- Eguneroko bizitzako jarduerak.
- Osasunerako heziketa.
- Harremanak.



GAUEKO ZENTROA

Eskakizun maila baxu edo ertaineko ostatua, **32 pertsonarentzako** lekuarekin. **Presazko alojamendua** eskaintzen du etxerik gabeko pertsonentzat. Beste zerbitzu batzuk ere ematen dira: higiena eta dutxa, kontsigna, gosaria, afaria eta garbitegia. Egonaldia egoera psiko-sozialen araberakoa da, baina luzapena beti dago lotuta **gizarteratze-prozesuarekin**.

HELBURUAK

- Gaua pasatzeko espazio egoki bat ematea.
- Oinarrizko beharrian batzuei erantzutea (gosaria eta afaria); higiene pertsonala, garbitegia eta kontsigna.
- Gizarteratze-prozesuetan bide-laguntza ematea.



EGOITZAK

Tutoretzapeko etxebizitzaren artean, **65 pertsonarentzako** lekua eduki dugu 2019an, 12 etxebizitzatan. 6 etxebizitza **Bizkaiko Foru Aldundiarekin** hitzartuta daude -32 leku- eta gainerakoak -33 leku- guk geuk kudeatzen ditugu. Iraupen luzeko bi etxebizitza ditugu, egoera kronifikatua duten pertsonen prozesuetarako. Gainerakoak tarteko egonaldietarako dira, bizitza autonomia izateko laguntza eta sustapenerako. Bizi-eremu izateko sortu ditugu, etxerik gabe dauden 18 urtetik gorako pertsonentzat, sexu bietakoak. Emakumeen etxebizitzaren kasuan, beren kargura dituzten adingabeak ere bertan daude.





BFA-REKIN HITZARTUTAKO EGOITZAK

- **Tarteko iraupeneko programa: bizitza autonomoa lortzeko sustapena eta laguntza**

Heziketa maila ertaineko etxebizitzak dira, bazterkeria egoera arin edo moderatuan dauden pertsonentzat.


1. **Tau Sarea:** guztira 14 leku dituzten bi egoitza: Luzarra, 9 gizonentzako lekuarekin, eta Betania, 5 emakumerentzako lekuarekin.
2. **Mendipe eta Mendigane:** launa leku dituzten egoitza baliabideak.



- ***Iraupen luzeko programa: egoera kronifikatuan dauden pertsonen prozesuetan laguntzeko.***

Red Focus: Bidelagun Zaindu

Gizarte-baztekeria egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitzak. Iraupen luzeko zerbitzua behar duten pertsonak dira, eta esku-hartze erritmoa nahijoa pausatua da. 2 etxebizitza dira, guztira, 10 pertsonarentzako lekuarekin: Bidelagun, 7 pertsonarentzako, eta Zaindu, 3 pertsonarentzako.



KUDEAKETA PROPIOKO EGOITZAK

- **Immigrazio programa: Aize Onak Baserria**

Tarteko heziketa mailako etxebizitza da. Gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden etorkinak hartzen ditu. 11 pertsonarentzako lekua dauka, gizonentzat.





Bitartekaritza programa: Miramar

Zubi-lana egiten duen baliabidea da, DBEtik beherako diru-sarrerak dituzten eta gizartertze-prozesua burutzeko heziketa laguntza puntuala jaso behar duten pertsonentzat. 3 leku daude.

90,79% Okupazioa

4 pertsona
2 gizona
2 emakume

• Emakume programa

Hezkietan maika ertaineko etxebizitzak dira, adingabeak beren kargura dituzten edo bakarrik dauden adin nagusiko emakumeentzat. Lau etxebizitza dira, eta 19 leku daude guztira, 11 emakumerentzat eta 8 adingaberentzat.

1. **Agora:** 6 leku ditu, 3 emakume eta 3 adingaberentzat.
2. **Mugabe:** 6 leku ditu, 3 emakume eta 3 adingaberentzat.
3. **Ramon y Cajal:** 2 emakumerentzako lekua.
4. **Eceiza:** emakume bat eta adingabe bat edo bi egoteko lekua.

98,13% Okupazioa

17 emakume

13 adingabe (7 neskatu y 6 mutiko)



SENTSIBILIZAZIO ETA SALAKETA PROIEKTUAK

Etixerik gabeko pertsonen eguna / Beste Bi plataforma

Bizkaian etxerik gabeko pertsonen eskubideen alde lan egiten duten erakundeen plataformako kide gara. Apirilean egindako kanpaina eta manifestazioetan parte hartu genuen, baita urriaren 24ko ekintzetan ere, etxerik gabeko pertsonen munduko eguna dela eta, eta etxerik gabeko pertsona bat hiltzen den bakoitzean egiten diren ekintzetan.



Argazki erakusketa: "Bilboko kaleek emakume aurpegia dute".

Lagun Artean elkarteak Bilboko Udalarekin batera egindako 20 argazkiko erakusketa. Etxerik gabeko emakumeek gure hirian bizi duten egoera salatzea du helburu. Aurten Deustuko Unibertsitatean jarri dugu erakusketa, horren inguruko Jardunaldiak aprobetxatuta. Salaketa hau unibertsitate eremura gerturatu nahi izan dugu.

Emakumeek Bidean

Emakumeekin lan egiten duten erakundeen sareko kide gara. Hilabete bakoitzeko azken ostegunean Deustuko San Felicesimo plazan elkartzen gara, auzoko beste elkarte batzuekin batera, genero indarkeria ekintzak salatzeke. Bilboko beste leku batzuetan ere egiten da.



Pobreziaren eguna. Urriak 17



PARTE-HARTZE SOZIALA ETA KOMUNITATE PRESENTZIA

Jardunaldiak: Egiturazko indarkeriak etxerik gabeko emakumeengan daukan eragina

Lagun Artean elkartearen 35. Urteurrena dela eta, jardunaldiak antolatu genituen, izenburu honekin: "Egiturazko indarkeriak etxerik gabeko emakumeengan daukan eragina". Helburua errealitate hori ikusaraztea izan zen, askotan ez baita kontuan hartzen. Ekitaldia Deustuko Unibertsitateko Auditoriumean izan zen, eta Emakunde, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udalaren lankidetzak izan genuen.



Azoka txiki solidarioa La Salle ikastetxean

2019ko urriaren 14 eta 15ean Azoka txiki solidarioa antolatu genuen. Helburuak: eskola eremua etxegabetasunaren errealitatearen inguruan sentsibilizatzea, eta Deustuko auzoa osatzen duten erakundeen arteko lankidetzak harremanak sortzea.



Ingurumen Plana (2017-2019)

2017-2019 Ingurumen Planaren barruan, maiatzaren 11n Ingurumenaren Eguna egin genuen. Sentsibilizazio eguna izan zen batez ere, eta Lagun Artean osatzen dugun guztiontzako prestakuntza eta birziklatze tailerrak izan genituen.



Adiskidetasunaren basoa

Ingurumenarekiko konpromisoaren barruan, 2019an, basoa berriz ere zuhaitzez betetzeko lanean parte hartu dugu. Horretarako, Derioko Apaiztegiaren ekimenarekin bat egin eta haritz bat landatu dugu. Ekimen honetan 50 enpresa eta erakunde inguruk eman dute laguntza, eta lehenengo zuhaitzak eman dituzte dohaintzan.

2019ko Berdintasun Foroa

Emakundek urtero jartzen du martxan "Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako Foroa" izeneko ekimena. Topaketa eremu horren bidez, erakunde publiko zein pribatuek berdintasunaren aldeko ekimen batzuk burutzen dituzte. Lagun Artean elkartearen izenean, azaroaren 14an "Sonrisa" izeneko film laburra proiektatu genuen Deustuko Erriberan kokatutako autobusean. Filmaren zuzendaria, Oscar Andrés, gurekin izan zen, eta osteko foroa dinamizatu zuen.



Gizarte eraldaketa

Boluntarioen esperientziak

Lagun Artean elkarte boluntariotzan oinarritzen da. Aurten bereziki nabarmendu behar dugu Deustuko Unibertsitateak eta Boluntak antolatutako Boluntariotza Azokan parte hartu dugula. Gainera, La Caixa Fundazioak bere konpromisoa berretsi du eta Aize Onak Baserria konpontzeko lanetan lagundu du, bi asteko boluntariotza programaren bidez.



SARIAK



Premio Solidario BBK Deia



Premio a la Solidaridad
Fundación Antonio Menchaca



Premio Territorios Solidarios


SARE ETA FOROAK



Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak
Redes para la Inclusión Social en Euskadi




Diru-sarrerak



- Erakunde publikoak
- Erakunde pribatuak
- Erabiltzaileen ekarpenak
- Dohaintzak
- Bestelako diru-sarrerak

Gastuak



- Langilea gastuak
- Alokairuak
- Azpiegiturak mantentzea
- Administrazioa eta bulegoa
- Zergak eta finantza gastuak
- Aseguruak

TXOSTEN EKONOMIKOA 2019

Erakunde publikoak	1.100.469,01
Erakunde pribatuak	141.090,00
Erabiltzaileen ekarpenak	41.122,80
Dohaintzak	136.654,00
Bestelako diru-sarrerak	20.174,66
Guztira	1.439.510,47
Langile gastuak	843.959,76
Alokairuak	139.160,76
Azpiegiturak mantentzea	366.114,12
Administrazioa eta bulegoak	34.691,19
Zergak eta finantza gastuak	2.143,12
Aseguruak	8.837,55
Guztira	1.394.906,01
Emitza	44.604,46

Ikuskaritzak


- **Ikuskaritza ekonomikoa:** Auren Consultores Norte S.L.
- **Ikuskaritza soziala:** REAS (Sare Ekonomiko Alternatibo eta Solidarioaren Gizarte Ikuskaritza)

Gardentasuna

- Lagun Artean elkarteak webgunean argitaratu ditu datu ekonomikoak, zehatz-mehatz.



NOLA LAGUN DEZAKEZU?



Lagun Artean